

AZPEITIA / Literatura solasaldia, ostegunean, udal liburutegian, 18:30ean hasita

Ostegunean, abenduak 20, bigarren literatura solasaldia burutuko da udal liburutegian. 18:30ean hasiko dira eta oraingoan, Jon Arretxe idazlearen 'Tangerko ametsak' eleberriari buruz arituko dira.

Pasa azaroaren 22an egin zuten udal liburutegian estraineko literatura solasaldia. "Azpeitiaren antzeko beste herri batzuetan burutu dituzten gisako solasaldien berri izanik, esan liteke arrakastatsua izan zela Azpeitiko saioa, oso gainera", dio Pako Aristi idazleak orduko bilguneari buruz. 20 lagun inguru bildu ziren. 'Ni, Vera', Itxaso Martin Zapiainen lehen nobela izan zuten hizketagai. "Ekimen polita, lasaia, gozoa eta, sortu ziren hizketagaiak ikusirik, partaide guztientzat aberasgarria", aipatu du Aristik.